



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

BERGARAKO UDALA - AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA

1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukia

Udal sektore publikoaren 2019ko Aurrekontu Orokorra 24.428.486,00 eurokoa da, eta honako hauek osatuko dute:

- a) Udalaren aurrekontua 24.009.000,00 euroko gastu eta sarrerak dituena.
- b) "Udal Euskaltegia" erakunde autonomoaren aurrekontua, 405.986,00 euroko gastu eta sarrerak dituena.
- c) "Mizpirualde Egoitza" erakunde autonomoaren aurrekontua, 13.500,00 euroko gastu eta sarrerak dituena.

Bestalde, aurrekontu orokorrari dagozkion doiketak egin ondoren, Aurrekontu bateratuaren kopurua da 24.266.395,00 euro.

2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak

2019ko ekitaldi ekonomikoan Bergarako Udalak abalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbatekoaren % 5eko mugapean.

Organismo autonomoek eta sozietate publikoak ezingo diote inori abalik eman, ez eta edozein izaeratako bermerik ere.

3. artikulua.- Zorpetze muga

Udalak bere gain hartutako epe luzeko zorpetze-eragiketengatik, edozein izanik ere horiek dokumentatzeko era, 2019ko abenduaren 31n gelditzen den maileguzen zor bizia ezingo da 8.933.776,54 eurotik gorakoa izan.

Organismo autonomoek bere aurrekontuko gastuak finantzatzeko ezingo du kreditu-eragiketarik hitzartu. Halakorik behar izanez gero, Udalak emandako transferentziek orekatu beharko du haren aurrekontua.

2019ko ekitaldiaren barruan udal sektore publikoa osatzen duten entitateek urtebetetik behera zorpetze-eragiketak hitzartu ditzakete Diruzaintzan sor daitezkeen unean uneko premiak finantzatzeko. Dena dela, Udalean eta organismo autonomoen eragiketa horiek hitzartu ahal izateko, Alkateak edo berak delegatutako organoak edo Udalbatzarrak onartu beharko dituzte alde aurretik.

Diruzaintzako eragiketa horien hitzarmena eta beren amortizazioa aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra

Kredituen lotespen juridikoen mailak:



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

1.- Aurrekontu Orokorraren egitura abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuaren arabera egingo da.

Gastuen egoera-orrian agertzen diren kredituak ondorengo irizpideei jarraiki sailkatu dira:


- Ekonomikoa.- Burutzen ari den gastuaren izaera jasoaz, 5 mailatan garatua: Kapituluak, Artikulua, Kontzeptua, Azpi-kontzeptua eta Partida Ekonomikoa.
- Programa.- Jarraitzen diren xede eta helburuei buruzko informazioa ematen du, ondorengo mailak bereizten direlarik: Gastu-arloa, Gastu-politika, Programa-taldea eta Programak.
- Organoa.- Departamentu eta Atal bakoitzak aipaturiko bi maila hauetan garatutako zein gastu kudeatzen duen jasotzen du.

2.- Sailkapen organiko, ekonomiko eta programakakoa bateratzean definituta gelditzen den aurrekontu- eta kontabilitate-partida oinarri-unitatea izango da, eta horren arabera egingo da kontabilitate-erregistroa kredituei eta horien aldatetei dagokienean eta gastu-exekuzioen eragiketei dagokienean.

3.- Sistemari eskatzen zaizkion informazio-helburuei erantzuteko, partidaren konfigurazioa birdiseinatu egin da, eta bere eskema ondorengo hau izango da:

X - XX - XX - XXX - XXX - XX - XX - XXXX

A B C D E F G H



Eskeman ikus daitekeen bezala, partida, SIGEk sartutako bere konfigurazio berrian, 19 digituko multzo batez osatuta dago, eta horiek aldi berean 8 taldetan zatitzen dira.

- A Taldea:



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

Eskeman adierazitako partidaren A taldeko digitua partida-motaren adierazlea izango da eta ondorengo balioak hartuko ditu:

1. Aribideko ekitaldiko (*ejercicio corriente*) eta bere kreditu txertatuen (*créditos incorporados*) gastu-eragiketak.
2. Aribideko ekitaldiko sarrera-eragiketak.
3. Gastu-gerakinak (*resultas*), aurreko ataletan definitutako terminoetan.
4. Sarrera-gerakinak.
5. Etorkizuneko ekitaldietako gastu-eragiketak.
6. Partida loteslea (*vinculante*).

- B Taldea:

Digitu hauen kodeak adieraziko du zein Batzorde Informatzailerri egotzi behar zaion gastua (edo sarrera).

- C Taldea:

Digitu hauek sailkapen organikoaren garapen handiago baterako erreserbatuta daude.

- D Taldea:

Hiru digituko talde hau gastuaren sailkapen ekonomikorako eta sarrera-talderako erreserbatuta dago.

Horrela, lehen digituak kapitulua (sarrera edo gastuena) islatuko du. Lehen eta bigarren digituek, elkarrekin, artikulua (sarrera edo gastuena) adierazten dute. Hiru digituek, elkarrekin, gastuen kontzeptu ekonomikoa edo, hala badagokio, sarrera-kontzeptua adierazten dute.

- E Taldea:

Hiru digituko talde hau gastuen Programako sailkapenerako erreserbatzen da. Lehenak Gastu-arloa adierazten du. Bigarrenak Gastu-politika. Hirugarrenak Programa.

Sarrera-partida bat izanez gero, berezitasun ekonomiko osagarriaren izaera dauka, besterik gabe.

- F Taldea:

Bi digituko talde hau "programaren" zehaztasunerako erabiliko da.

- G Taldea:

G taldeak jasotzen ditu sarrera-kontzeptuaren eta gastuen kontzeptu ekonomikoaren azken bi digituak.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

- H Taldea.

Azken lau digituek partidaren jatorrizko urtea adierazten dute. "2019" balioak hartuko lituzke aribideko ekitaldiko aurrekontuaren partida bat izanez gero. Gainerako kasu guztietan, hots, gerakin eta etorkizuneko ekitaldietako partidetan, gerakinaren jatorrizko urtea edo gastu-konpromisoa burutzen deneko hurrengo urtea jasoko luke.

Aurrekontu-partidaren gaiarekin amaitzeko, esan behar da gerakinek lehen digituaren (partida-motaren adierazlea) eta azken bi digituren (jatorrizko urtearen adierazleak) ezaugarriak eramango dituztela.

SAILKAPEN ORGANIKOA ETA AZPIORGANIKOA

01: Gobernu organoak

0100: Gobernu organoak

02: Barne Batzordea eta Obrak eta Zerbitzuak

0210 : Idazkaritza eta Zerbitzu Orokorrak; Udaltzaingoa.

0220: Obra eta Zerbitzuak.

03:Kultura

0310: Kultura, Jaiak, Museoa eta Ondarea.

0320: Kirolak.

0330: Hezkuntza.

0340: Gazteria.

0350: Euskara

04. Ogasuna

0400: Ogasuna

05: Gizarte Zerbitzuak.

0500: Gizarte Zerbitzuak.

06: Lurralde Antolamendua.

0600: Lurralde Antolamendua.

07. Auzoak eta Landa Garapena.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

0700: Auzoak eta Landa Garapena.

08. Ingurumena

0800: Ingurumena.

09. Ekonomia Sustatu

0900: Ekonomia Sustatu.

Lotespen juridikoak.

1.- Baimendutako kredituek, gastuen egoera-orrian azaltzen duten desagregazio-maila edozein izanda ere –horrek izaera adierazgarri hutsa baitu–, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute, hurrengo puntuan ezartzen den lotespen juridikoaren mailaren arabera.

2.- Lotespen juridikoaren mailak honako hauek dira:

Langileriaren gastuak (I. Kapituluak)

Kapitulu mailako lotespena.

Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan (II. Kapituluak)

- a) Gastu-programei dagokionez, gastu-arloa.
- b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapituluak.
- c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

Finantza-gastuak (III. eta IX. Kapituluak)

Kapitulu bien batuketa.

Transferentzia arruntak (IV. Kapituluak)

- a) Gastu-programei dagokionez, gastu-arloa.
- b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapituluak.
- c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

Inbertsio errealak (VI. Kapituluak)

Partida.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

Kapital-transferentziak (VII. Kapitulua)

Partida.

Finantza-aktiboak (VIII. Kapitulua)

Partida.

3.- Nolanahi ere, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute Gastuen Egoera-orrian agertzen direneko desagregazio-mailarekin:

- a) 9. artikuluan ezarritakoari jarraiki zabalgarritzat deklaraturako kredituek.
- b) Urteanitzeko (*plurianual*) konpromisoko kredituek.
- c) Aurreko ekitaldietatik datozen kreditu txertatuek.

Kreditu zabalkorrak

Aurrekontuko edozein partida zabalkorra izango da, kanpo finantziario berriren bat sortu edo aurreikusita zuena handitzen bazaio.

Finantziario-igoeraren kopurua izango da kreditu-gehikuntzaren muga.

5. artikulua.- Kreditu-aldaketaren erregimenari buruzko arauak

Aurrekontu-kredituak aldatu ahal izango dira, Udal Entitateen Aurrekontuei buruz indarrean dauden xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein programa funtzionalean izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.

Lehendakaria izango da kreditu-aldaketak onartzeko organo eskuduna, indarrean dagoen legediak onartzen edo aukera ematen duen kasu guztietan. Hala ere, kreditu gehigarrien kasuan, Lehendakariak izango du eskumena baldintza hauek betetzen dituzten kreditu gehigarriak onartzeko:

- a) Artikulu honen bigarren apartatuko hirugarren paragrafoan aipaturako kreditu eragiketen bidez ez finantzatzea.
- b) Urte guztikoak metatuta, aurrekontuaren hasierako kredituen %5etik gorako gehikuntza ez ekartzea.

Aparteko kasu horretarako, ez dira aplikatuko apartatu honen aurreko paragrafoan aipaturako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurso arauak.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

6. artikulua.- Kreditu globala

Aurrekontuko gastuen egoera-orriaren barruan ordainketa-kreditu globala sartu ahal izango da, ordainketarako beste kreditu batzuen zuzkiduren gutxiegitasunak gauzatzeko edo zuzkidurarik ez duten beharrian berriei aurre egiteko; bai eta zabalgarritzat hartzen diren kredituak finantzatzeko ere. Horrela eraturako kreditu globalaren zuzkidura ez da Toki Erakundearen Administrazioaren Aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren % 5 baino gehiago izango, kreditu globalaren beraren zuzkidura barne dela. Kreditu globala 21/2003 Foru Arauaren 23. artikulua garatzen duen prozedurari lotua geratzen da. Kreditu globalaren xedapenak Alkateak baimenduko ditu.

7. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio-arauak

1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

2.- Gastuen baimena eta erabilera

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen-arau hauek beteko dira:

a) Udalbatzarraren eskumena izango da sarrera arrunten % 10etik (2.209.826,80 euro) gorako gastuetan, nahiz konpromisozko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera.

b) Alkateak edo berak delegatutako organoaren eskumena izango da 2.209.826,80 eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimenerako espedientea alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zurtzeko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontuhartzaileak kreditu erabilgarriari buruzko txostena idatzi beharko du.

Udalak eta bere bi erakundeek egiten dituzten esleipenak azaroak 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak edo une bakoitzeko legedi hau ordezkatzeko duen arauari jarraituz egingo dira.

Aipatu legeak ezarritako mugak hauek dira:

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

Kontratu Mota	Kontratu Txikia € (*)	Super-simplifikatutako Prozed. Irekia € (*)	Simplifikatutako Prozed. Irekia € (*)	Prozed. Irekia € (*)
Obrak	40.000 €	40.001– 80.000 €	80.001-2.000.000 €	Mas de 2.000.000 €
Horniketak	15.000 €	15.001 - 35.000 €	35.001-100.000 €	Mas de 100.000 €
Zerbitzuen Kudeaketa	15.000 €	15.001 - 35.000 €	35.001-100.000 €	Mas de 100.000 €
Aholkularitza / asistentzia	15.000 €	15.001 - 35.000 €	35.001-100.000 €	Mas de 100.000 €

(*) Bez kanpo

Kontratazio guztietarako I.Eranskinean adierazten diren fluxu-diagramak jarraituko dira.

2.1.- Kontratu txikiei buruz: Aurrerantzean 9.000 eurotik gorako (BEZ kanpo) kasu guztietan hiru aurrekontu eskatu beharko dira. Salbuespen bakarra, larrialdi edota urgentziatzko kontratazioak izango dira; hala ere, burutu aurretik batzordeburua jakinaren gainean jarri beharko da.

Pleguen beharrik ez duten kontratu txikiak adjudikatzeko, horrela egingo da:

- 1.- Dagokion departamentuko teknikari eskudunak gastuaren beharri buruzko txostena egingo du.
- 2.- Txosten hori Kontuhartzaitzara bidaliko da, kreditua ote dagoen egiaztatzeko.
- 3.- Kontuhartzaitzan, kreditua eskuragarri egoteari buruzko txostena egingo da.
- 4.- Behin kreditua eskuragarri dagoela egiaztatu ondoren eta Kontuhartzaitzaren aldeko txostenarekin, dagokion batzorde informatzaileak adjudikazio-proposamena egingo dio Tokiko Gobernu Batzarrari edo organo eskudunari, horrek onartu dezan.

2.2.- Gainontzeko kontratuei buruz: Kontratu txikiak ez badira eta pleguen beharra badute, horrela egingo da:

- 1.- Dagokion departamentuko teknikari eskudunak gastuaren beharri buruzko txostena egingo du.
- 2.- Txosten hori Kontuhartzaitzara bidaliko da, kreditua ote dagoen egiaztatzeko.
- 3.- Kontuhartzaitzan, kreditua eskuragarri egoteari buruzko txostena egingo da.
- 4.- Behin kreditua eskuragarri dagoela egiaztatu ondoren eta Kontuhartzaitzaren aldeko txostenarekin, dagokion departamentuak proiektua (kasuan kasu), gastua eta dagozkion pleguak onartzearen aldeko irizpena emango du.
- 5.- Dagokion departamentuak irizpen hori Tokiko Gobernu Batzarrari edo organo eskudunari bidaliko dio, horrek onartu dezan.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

6.- Idazkaritzatik, pleguak onartu direla jakinaraziko zaio Kontuhartzaitzari, dagokion kontabilitate-eragiketa egin dezan.

2.3.- Erosketa politika: Beti hiru eskaintzen artetik merkeena aukeratu beharko da, ondo arrazoitutako kasuak salbuetsita. Produktu-horniketa eta mantentze-lan arruntetarako zerbitzuetako zerbitziburuei gomendatzen zaie urte osorako baliagarriak izango diren hiru aurrekontu eskuratzeko gehien erabiltzen dituzten langaietan edo produktuetan, adibidez:

- iturgintza
- elektrizitate-zerbitzuak
- burdina-dendak
- igeltseroak
- informatika-produktuak
- bulegoko materiala
- garbiketarako gaiak
- gai kimikoak
- aseguruak
- lanerako jantziak

3.- Obligazioaren onarpena

Alkateak edo berak delegatutako organoak onartuko ditu legez eskuratutako gastu-konpromisoetatik sortutako obligazioak.

Obligazioen onarpena oinarritzeko agiritzat Kontuhartzaitzaren erregistratu edo kontabilizatutako faktura-zerrenda har daiteke.

Hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino geroago diligentziaz diren egungo ekitaldiko fakturak, hurrengo ekitaldian jasoko dute onarpenaren kontabilizazioa.

4.- Ordainketaren agindua

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

Berankortasunari aurre egiteko arauari jarraituz, faktura guztiak, erregistro-egunetik hasita, 30 eguneko epean ordaindu beharko dira, betiere diruzaintzako egoerak eta fakturaren onarpen egoerak ahalbideratzen badu.

Itundutako zerbitzugintza, kontratuak direla medio, hartutako konpromisoak eta 1.000,00 eurotik beherako fakturak, onartu bezain pronto ordaindu ahal izango dira.

Hala ere, diruzainak gauzatuko ditu ordainketa-zerrendak, Fondoan Erabilerarako Planari eta pertsonal-gastuek eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioek duten beharrezko lehentasunari jarraiki.

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke honako kasuetan, bertan aipatzen diren mugen barne:

- * Gastuen baimena eta erabilera udal entitatean legez hartutako konpromisoetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguen interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzeneko erosketak.
- * Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arruntren gastuetan, kontratazio-prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigiarritasuna bat-batekoa denean: dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina-ordainketak eta udal entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da betiere erabakia hartuko duen organoak eskumenak izatea –berezkoak, eskuordetutakoak nahiz deskontzentratutakoak– ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeko.

8. artikulua.- Fakturen onarpen eta kontabilizazio tramiteak.

1. Ez dira kontabilizatuko gastu-proposamenik ez duten 9.000,00 eurotik gorako fakturak.

Gomendagarria izango da 600,00 eurotik gorako gastu guztiak gastu-proposamena izatea, eta 600,00 euro edo beherako gastuak faktura bidez bideratuko dira.

Gastu-proposamenak, onartutako eredu bateratuari jarraituz egingo dira (II. Eranskin gisa doa atxikia) eta atal hauek jaso beharko dituzte:

- Partida edo partidak (partidaren kesia-barne kodea ezaguna bada, baita ere)
- Hirugarrenaren edo hornitzailearen NAN, IFK edo kesi (barne kodea) eta telefonoa.
- Hirugarren hori berria denean datu fiskal guztiak agertu beharko dira.

2. Helbideratutako hornitzaileen fakturak, erregistratu edo ez, ez dira balioztatzen bideratuko, eta beharrezkoa bada Kontuhartzaitzetan balioztatuko dira (Adibidez: telefonoa, gas-hornidura, argindar-hornidura, gasolina, mailegu-amortizazioak...)

Faktura hauen informazioa "sarEko" edo horretarako bideratutako excel edo informazio orrian jaso ahal izango da (F unitatea). Dagokion departamentuko teknikari eta lehendakariak izango dira kopuruak berrikusi eta indarrean dagoen kontratuarekin bat datozen begiratzeko ardura izango dutenak.

3. Erregistratutako beste faktura guztiak honela balioztatuko dira:

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

3.1) Faktura eta gastu-proposamena berdinak badira: Eskumena duen teknikariak faktura sisteman balioztatuko du eta dagokion batzordean horren berri emango du. Kontuhartzaitza Departamentuak faktura-zerrenda batean sartuko du; Ogasun Batzordeak horri buruzko irizpena emango du; eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo dagokion organoak onartuko du.

3.2) Fakturaren kopurua gastu-proposamena baino handiagoa bada: Eskumena duen teknikariak txosten justifikatzaile bat egingo du, non azalduko duen zergatik dagoen horrelako aldea fakturaren eta gastu-proposamenaren arteko kopuruetan. Dagokion batzorde informatzailean txosten horren berri emango da, batzordeak txostenari oniritzia eman diezaion. Behin txostenak dagokion batzordearen oniritzia izan ondoren, teknikari txosten-egileak txostena erantsiko dio fakturari "sarEko" sisteman.

Teknikari eskudunak faktura balioztatuko du (txostenarekin batera) "sarEko" sisteman; gainontzeko balidatzaileek ere gauza bera egingo dute.

Kontuhartzaitzako Departamentuak faktura hori faktura-zerrenda batean sartuko du; Ogasun Batzordeak horri buruzko irizpena emango du; eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo dagokion organoak onartuko du.

3.3) Fakturaren kopurua gastu-proposamena baino txikiagoa bada: Eskumena duen teknikariak txosten justifikatzaile bat egingo du, non azalduko duen zergatik dagoen horrelako aldea fakturaren eta gastu-proposamenaren arteko kopuruetan. Dagokion batzorde informatzailean txosten horren berri emango da, batzordeak txostenari oniritzia eman diezaion. Behin txostenak dagokion batzordearen oniritzia izan ondoren, teknikari txosten-egileak txostena erantsiko dio fakturari "sarEko" sisteman.

Teknikari eskudunak faktura (eta txostena) balioztatuko du "sarEko" sisteman; gainontzeko balidatzaileek ere gauza bera egingo dute.

Kontuhartzaitzako Departamentuak faktura hori faktura-zerrenda batean sartuko du; Ogasun Batzordeak horri buruzko irizpena emango du; eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo dagokion organoak onartuko du.

3.4) Gastu-proposamenik gabeko fakturak: Kontratu txikiak badira baina 600,00 eurotik gorakoak, teknikari eskudunak gastuaren txosten justifikatzailea egingo du, eta dagokion batzorde informatzailean aztertuko dira biak –faktura eta txostena– bertan oniritzia eman ahal izateko.

Dagokion batzordearen oniritzia lortu ondoren, teknikari eskudunak eta dagozkion pertsonak faktura (eta txostena) balioztatuko dute "sarEko" sisteman.

Kontuhartzaitzako Departamentuak faktura hori faktura-zerrenda batean sartuko du; Ogasun Batzordeak horri buruzko irizpena emango du; eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo dagokion organoak onartuko du.

Atal honetan deskribatutako gastu-proposamenik gabeko fakturak EZ DIRA AZTERTUKO BANAKA-BANAKA EZ OGASUN BATZORDEAN EZ TOKIKO GOBERNU BATZARREAN, faktura-zerrenda baten barruan joango baitira.

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

3.5) Begarako Udalak eta udalaz kanpoko beste pertsona batzuek era bateratuan beren gain hartu beharreko fakturak edo gastuak: Atal honetan honako faktura hauek aipatzen dira: Bergarako Udalak ordaintzen ditu baina udalaz kanpoko beste pertsona batzuek beren gain hartu beharrekoak dira; hala nola, bizilagunen komunitateenak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak...

3.5.1) *Faktura baldin badago*: Teknikari eskudunak txosten justifikatzailea egingo du, non azalduko den udalaz kanpoko pertsona horiek ordaintzeko betebeharra dutela.

Dagokion batzorde informatzailean txostena aztertu eta horri buruzko irizpena emango da, non proposatuko den gastua nola ordaindu.

Dagokion batzorde informatzaileak egindako ordaintze-proposamen hori Ogasun Batzordera bidaliko da eta honek, behin gastuari buruzko irizpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari edo dagokion organoari bidaliko dio, irizpena onartu dezan.

Teknikari eskudunak faktura (eta txostena) balioztatuko du "sarEko" sisteman, eta gainontzeko balidatzaileek ere gauza bera egingo dute, behin Tokiko Gobernu Batzarrak edo dagokion organoak onartutakoan.

Faktura hauek EZ DIRA SARTUKO INOLAKO FAKTURA-ZERRENDATAN.

3.5.2) Fakturarik ez badago, baina bai ordaintzeko betebeharra: Teknikari eskudunak txosten justifikatzailea egingo du, non azalduko den Udalak ordaindu beharra duela udalaz kanpoko beste pertsona batzuekin batera.

Dagokion batzorde informatzailean txostena aztertu eta horri buruzko irizpena emango da, non proposatuko den gastua nola ordaindu.

Dagokion batzorde informatzaileak egindako ordaintze-proposamen hori Ogasun Batzordera bidaliko da eta honek, behin gastuari buruzko irizpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari edo dagokion organoari bidaliko dio, irizpena onartu dezan.

600 euro edo beherakoak teknikari arduradunak balioztatuko ditu eta hauen berri emango dio dagokion zinegotziari.

600 eurotik gorakoak teknikari arduradunak eta zinegotziak balioztatuko dituzte.

Balioztatze-epena gehienez 15 egunekoa izan beharko da.

4. Udal departamentuetan jasotzen diren fakturak Kontuhartzaitzara bideratuko dira, adierazita zein sail edo departamenturi dagokion faktura horren oniritzia edo balioztapena ematea.
5. Fakturak balidatu ondoren, kontu hartzaitzaren zerrenda bat egingo da eta Ogasun batzordeari helaraziko zaio honek oniritzia eman dezan, eta jarraian Alkatetzak onartu beharko du, edo honek izendatzen duen organoak (beti ere faktura horiek aurrez beste biderik jarraitu ez badute-esate baterako: obra ziurtagiriekin zerikusia dutenak, lizitazio prozedurekin...). Beharrezkoa bada, fakturen zerrenda alkatetzaren oniritzia jasotzeko pasa ahal izango da, Ogasun batzordeak aurrez onartu beharrik

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

izan gabe. Kasu hauetan, ondorengo Ogasun Batzordean zerrenda horien berri emango da.

6. Tekniko arduradun bakoitzak, bere departamentuan, balioztatutako fakturen berri emango du, dagokion batzordean edo batzordeburuari.
7. Ardurak: teknikari arduradunaren edo arduradunen eta dagokion zinegotziaren ardura izango da ekitaldi bukaeran partidaren kreditu erabilgarria positiboa izatea, eta salbuespenen bat gertatuz gero, beti partida lotesleen multzoko kredituak ekitaldiko abenduaren 31n zero edo positiboa izan beharko du.
8. Diru-laguntzak ez diren hainbat gasturi buruzko arauak.
 - a) Hitzaldi, ikastaro, kontzertu, bertso-saio, jaietako laguntza eta antzerako kasuetan, faktura edo baliokide izan daitekeen agiria exijituko da.
 - b) Beka eta lehiaketetako sarien irabazleen zerrenda nominalak (BEART, feriak, literatura, erakusleihu, euskara ikasteko matrikulak eta beste) Kontuhartzaitzan entregatuko dira, ordainketak transferentzien bitartez egin ahal izateko.
 - c) Pertsona fisiko eta juridikoen aldeko horrelako ordainketetan, errenta zergari dagokion atxikipena egingo da.
 - d) Jaietako gastu txikietan (gazte laguntzaileendako sariak, mazerak...), dagokion teknikari arduradunak egindako ordainketa-agiria exijituko da bakarrik.

9. artikulua.- Gerora zuritu beharreko ordainketak

Ordainketa-agindu guztiak agiri bidez justifikatzeko printzipioaren salbuespen gisa, "gerora zuritu beharreko" ordainketa-aginduak egin ahal izango dira.

Egindako ordainketak zuritu egin beharko dira dirua jaso eta gehienez hiru hilabetera.

Gerora zuritu beharreko ordainketa-aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jasotako fondorik ez izatea zuritu gabe.

10. artikulua.- Kutxa finkoko aurrerakinak

Ez da Kutxa finkoko aurrerakinik onartuko 2019ko aurrekontuetan.

11. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalte-ordainak

Hautetsiek, funtzionarioek eta langile kontratatuek egindako lanen kalte-ordainei buruz Eusko Jaurlaritzak ekainaren 28ko 121/2006 Dekretuan (16/1993 Dekretua aldatzen duena) jasotako indemnitazioak hartzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan, bai hautetsiek bai gainerako udal langileek egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan jasoz noiz eta nora joan diren eta egindako gestioen berri



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

emanen. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalte-ordainaren zenbatekoa.

12. artikulua.- Diru-laguntzak

1. Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak onartzeko akordioak bat etorri beharko dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legearekin eta hori garatzen duen legediarekin (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin), Bergarako Udalak onartutako diru-laguntzen Plan Estrategikoarekin, urtean zehar egin daitezkeen deialdiek arautzen dituzten oinarriekin, eta hemen xedatutakoarekin.

2. Diru-laguntza motak:

a) Konkurrentzia erregimena: kontzesioa deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera egingo da, dagoen kredituaren muga kontuan hartuta.

b) Zuzenekoak, hauek izan daitezke:

- Udaleko aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitakoak eta aurreko deialdiarekin zerikusirik ez dutenak.

- Legezko tartean arauz ezarritakoak.

- Interes publikoko, sozialeko, ekonomiko edo gizatiarrekin arrazoiak egiaztatzen dituztenak, edo deialdi publikoa zailtzen duten eta behar bezala justifikatutako beste batzuk.

3.000,00 euro baino txikiagoko diru-laguntzak zuzenean eman ahal izango dira, hitzarmenik sinatu gabe. Halere, akordioan zehaztu beharko da laguntza horien helburua. Talde jasotzaileak nortasun juridiko gabekoak ere izan daitezke. Halere, talde horien ofizialtasuna bultzatuko da.

3.000 euro baino gutxiagoko diru laguntzetara aurkeztu ahal izango dira pertsona fisiko zein juridikoak, izaerarik gabeko publiko zein pribatuak, edo unitate juridikoak, elkartearen ordezkari bakarra izendatu beharko dutenak. Ordezkariak elkartearen konpromiso eta betebeharrak hartuko ditu bere gain.

3. Onuradunen betebeharrak:

a) 38/2003 Diru-laguntza Legean (non zehazten diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, justifikatzea, ordaintzea eta abar) eta deialdi bakoitzak xedatutakoak bete beharko dira.

b) Diru-laguntzak eskatzerakoan honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira gutxienez (deialdi bakoitzaren oinarrietan xedatu ahal izango da besterik edo gehiago) :

- Eskaera sinatua, adieraziz taldearen izena eta datu fiskalak, sinatzailearen datu fiskalak, ordainketarako erabiliko den kontu korrantea.

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

- Aurreikusitako jardueren zerrenda.
 - Gastu eta sarreren aurrekontua.
 - IFK (CIF) aurreko urteetan aurkeztu ez badute edo ordezkariaren NAN, izaera juridikorik gabeko elkarteentzat.
 - Gizarte Segurantza, Foru Ogasun eta Bergarako Udalarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiriak. Udal Batzorde Informatzaile bati jarduera guztietarako eskatzen zaion diru-laguntza 3.000 euro baino txikiagoa denean, dokumentu horiek zinpeko aitortpen batengatik ordezkatu ahal izango dira, jasotzailea erakunde ez ofiziala denean.
 - Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta entitateen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentua, edo izena emanda jarraitzen denaren zinpeko adierazpena.
 - Zinpeko aitortpena, eskatzaileak sinatuta, non adieraziko den ea eskatutako diru-laguntzaren xedeko jarduerak adin txikikoekin harremanik dakarren edo ez, eta baiezkoa balitz, adieraziko da lan horien ardura duten langileek, baita boluntarioek ere, horretarako beharrezkoa den aldeko ziurtagiria dutela (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak –adin txikikoaren babes juridikoari buruzkoak– 13.5 artikuluan agintzen duena).
- c) Hitzarmena sinatzea. Diru-laguntza txikietan (3.000,00 eurotik beherakoak) ez da beharrezkoa izango hitzarmena.
- d) Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatze dokumentuak gordetzea, gutxienez bost urteko aldi batean.
- e) Lagundutako ekintzen berri ematerakoan adierazi beharko da Bergarako Udalak edo haren erakunde autonomoek diruz lagundu dutela.

4. Diru-laguntzak justifikatzea.

Diru-laguntzen onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako dirua diru-laguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.

Diru-laguntzaren justifikazioa, orokorrean, justifikazio-kontu sinplifikatuaren bidez egingo da, betiere premiazko betebeharrak betez gero.

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira gutxienez (deialdi bakoitzaren oinarrietan xedatu ahal izango da besterik edo gehiago):

- a) Diru laguntza “ordaintzeko” eskaera-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketa-memoria bat; bertan, honako hauek jaso behar dira:
 - Zenbat ekintza garatu diren
 - Zenbat herritarrengan heldu den diru-laguntza

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

- Zenbat pertsonak hartu duten parte zuzenean ekintzetan
 - Zein hizkuntza erabili den jardueren garapenean
 - Lortutako helburuen justifikazioa
 - Zein jarduketa egin diren jardun-eremu ezberdinetan emakumeen partaidetza handiagoa izatea lortu ahal izateko
 - Zein jarduketa egin diren ekologia eta ingurumen aldeko balio iraunkorrak sustatzeko.
- c) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzailearen identifikazioarekin; bertan datu hauek jasoko dira:
- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala ... balego)
 - Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia, ...)
 - Fakturatutako gastuaren kontzeptua edo pareko dokumentuan jasotakoa
 - Fakturaren -edo pareko dokumentuaren- zenbatekoa
 - Fakturaren -edo pareko dokumentuaren- jaulkipen-data
 - Fakturaren -edo pareko dokumentuaren- ordainketa-data
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- e) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenez).
- f) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio)
- g) Gizarte Segurantza, Foru Ogasun eta Bergarako Udalarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiriak. Udal Batzorde Informatzaile bati jarduera guztietarako eskatzen zaion diru-laguntza 3.000 euro baino txikiagoa denean, dokumentu horiek zinpeko aitorten batengatik ordezkatu ahal izango dira, jasotzailea erakunde ez ofiziala denean.
- h) Diru-laguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

Diru-laguntza behar bezala erabili dela arrazoitzeko moduko ebidentzia izan ahal izateko, Bergarako Udalak egiaztapenak egingo ditu laginketa-tekniken bidez, hau da, eskatzaileek aurkeztu duten xehetasun-zerrendatik faktura bat edo batzuk bidaltzeko eskatuko die udalak.

Izaera sozialeko premiazko laguntzak gizarte zerbitzukoek fiskalizatuko dituzte eurek onartutako prozeduren arabera, kontuan izanik beste fiskalizazio batzuk egin ditzaketela beste administrazio edo organo eskudun batzuk.

Diru-laguntza 30.000 eurokoa edo handiagoa denean, Bergarako Udalak erakunde jasotzailearen ekitaldiaren auditoria eskatu ahal izango dio.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

Diru-laguntza zuritzerakoan, kudeaketa-gastuei dagokienez gehienez onartuko da emandako diru-laguntzaren %2a. Kudeaketa-gastu horiek zuritzeko, jasotako gastuak egiaztatzen dituen txosten batekin egin ahal izango da.

5. Bermeak.

Oinarri-arau espezifikoek edo diru-laguntza emateko akordio zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharreko jotzen bermeak exijitzea Udalaren alde, emandako laguntzengandik.

6. Bergarako Udalak deialdi irekiaren bidez onartzen dituen laguntzak deialdian arautakoari jarraituz tramitatuko dira.

7. Emandako diru-laguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa: Kontuhartzaitzaren ardurapekoa izango da, eta indarrean dagoen legedian eta arau hauetan jasotako baldintzetan egingo da.

8. Dena den, diru-laguntzak eman dituen udal departamentu bakoitzak dokumentazioaren lehen errebisioa egiteko ardura izango du, jakiteko ea egokiak diren aurkeztutako agiri justifikatzaileak, memoria teknikoaren azterlana edo ekarritako gainontzeko dokumentazioa (11. artikuluko 4. puntuan jasotako agiriak). Udal departamentu bakoitzak dokumentazioa aztertu eta egiaztatu ondoren, txosten bat bidaliko du kontuhartzaitzara, ebazpen-proposamen arrazoitu batekin, komisioko lehendakariak eta teknikari arduradunak sinatua.

9. Aurrekontuarekiko betebeharrak.

- a) Diru-laguntza bati buruzko akordio exekutiboa hartu aurretik (deialdiak, hitzarmenen sinadurak, ordainketa partzialak edo behin betikoak), Hazienda batzordeak informatuko du (erakunde autonomoetan organo eskudunak).
- b) Ez da diru-laguntzarako gastu-proposamenik onartuko aurrekontuetan diru-izendapen nahikorik ez badago.
- c) Orokorrean, salbuespen arrazoiturik ezean, behin betiko ordainketarako, hau da, diru-laguntzaren likidaziorako, onartutako kopuru osoaren % 40 gorde behar da gutxienez. Likidazio hori ordainduko da jarduera edo ekintzaren justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.

13. artikulua.- Ikastaroak

- a) Baimenaren proposamena alorreko teknikari arduradunak eta dagokion zinegotziak sinatuko dute, besteak beste honako datuak jasoz:

* Ikastarora doanaren datuak, izen-abizenak, lanpostua, etab.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

- * Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
 - * Ordutegia.
 - * Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.
- b) Alkateak edo berak delegatutako organoak ebatziko du baimen-proposamenari buruz, aurrez kontuhartzaileak aurrekontu-krediturik egoteari buruz eginiko txostena ikusita.

14. artikulua. Urteko Aurrekontuarekiko jarraipena eta kontrola.

Legeak agintzen duen Udalbatzaren hiruhileko kontrola gauzatzeko, kontuhartzaileak hiruhilero, partidetako exekuzioa pasatuko du Ogasun batzordera.

15. artikulua: Zorrak zatika kobratzeko sistema.

Begarako Udalarekin zorrak dituen pertsona edo erakunde batek zor horiek zatika ordaintzeko eskaera aurkezten badu, Gipuzkoarako indarrean dagoen legedia aplikatuko zaio.

Eskaera bakoitzaren aurrean Ogasun Batzordeak baloratuko du abala aurkeztearen derrigortasuna.

Halere, lehendik baldin badu errespetatu gabeko beste eskaera bat, ez zaio eskaera berria onartuko, zor osoa eta interes berrien batuketaren kopurua abalatzeko ez badu.

Luzatu edo zatitu beharreko zorraren zenbatekoak ordaintzeko dagoen zorraren osotasuna hartuko du gutxienez, eta borondatezko ordainketa epea amaituta duena

Ur horniketa edo saneamendu zerbitzua dagozkion erreziboak ordaindu ez direlako eteten denean, horrela jokatu ahal izango da:

1. Horniketa edota saneamendu zerbitzuarekin dagoen zorraren zenbateko osoa ordaintzea, zerbitzua berrezartzea ekarriko duelarik.
2. Horniketa ezarri aurretik %50aren ordainketa egitea eta hasierako ordainketatik hilabeteko epean gainerako %50a ordaintzeko konpromisoa.

Bigarren %50a zatika ordaintzea eskatu ahal izango da lehen zatia ordaintzen denean.

Trafiko, aparkaleku, etabarren isunen ordainketa:



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

- Hasiara batean trafiko isuna salaketa izango da eta araudiaren arabera aplikagarri zaion onurekin ordaintzeko aukera izango da.
- Onura epea amaituta, isuna zigorra izatera pasako da eta kopuru osoa ordainketa bakar batean ordaindu beharko da, beraz fase honetan ezingo da zatika egin.
- Isunaren borondatezko epea amaituta, isuna zor izatera pasako da, eta beraz, zatika ordaindu ahal izango da dagozkion interesekin.

16. artikulua: Udal materiala erabili ahal izateko ezarritako fidantzak itzultzeko prozedura.

Udal instalazio edota materialak erabiltzeko ezarritako fidantzak Kontuhartzaitzak itzuliko ditu, dagokion udal teknikariaren fidantza itzultzearen aldeko txostena jaso ondoren, beste tramiterik gabe.

17. artikulua: Kredituak aurrerapenez txertatzea.

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiok batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

- Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.
- Zerbitzuruaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.
- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu dirusarrera helburudunen bitartez finantzaturako kapital eragiketak badira.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30 baino lehen egin behar da beti.

Aurretiaz txertaturako kredituak jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berdina izango dute txertatzen diren aurrekontuan.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoek Kontuhartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

18. artikulua: Udal bulegoetako diruzaintzan erabili daitezkeen txanponak errezibo eta kitapenen ordainketarako.

Udal bulegoetako diruzaintzan egiten diren ordainketetan ezingo dira erabili zentimo bateko, bi zentimoko eta bost zentimoko txanponak, erreziboaren bukaerako kopurua borobiltzeko ez bada.

Eragiketak ezingo dira esku dirutan ordaindu, baldin eta 2.500 euro edo bere baliokidea atzerriko monetan baldin badira.



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

I ERANSKINA


KONTRATAZIOARAKO FLUXU-DIAGRAMA

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

ZERBITZU ETA ONDASUNEN EROSKETA EXEKUZIOA

600 €tik beherako gastuen fluxu diagrama




AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

ZERBITZU ETA ONDASUNEN EROSKETA EXEKUZIOA

600 € eta 15.000 € bitarteko gastuen fluxu diagrama




AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

ZERBITZU ETA ONDASUNEN EROSKETA EXEKUZIOA

15.000 € eta 35.000 € bitarteko gastuen fluxu diagrama
(prozedura irekia super murriztua)




AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

ZERBITZU ETA ONDASUNEN EROSKETA EXEKUZIOA

35.000 € eta 100.000 € bitarteko gastuen fluxu diagrama
(prozedura irekia murriztua)




AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

ZERBITZU ETA ONDASUNEN EROSKETA EXEKUZIOA

100.000 €tik gorako gastuen fluxu diagrama (prozedura irekia)





AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

II ERANSKINA

GASTU PROPOSAMENEN EREDU BATERATUA



AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontua gauzatzeko udal araua

..... GASTU PROPOSAMEN ORRIA			
<p>Hornitzailea: Helbidea: Herria: Telefonoa:</p> <div style="border: 1px solid black; background-color: #cccccc; padding: 5px; width: fit-content; margin: 10px auto;"> Partida: Eguna: Urtea: </div>			
DESKRIPZIOA	Kantitatea	Prezioa	GUZTIRA
			0,00 €
			0,00 €

KOSTU GARBIA	B.E.Z.		BESTE BATZUK	GUZTIRA
0,00 €	%21	0,00 €		0,00 €

ZERBITZUBURUAREN ONITZIA

ZINEGOTZIAREN ONITZIA